

Merkatuaren segmentazioa

Gure produktua bezero desberdinei zuzenduta dago baina batez ere ostalaritzari zuzenduta dago, ez da bakarrik ostalaritzarako ekoiztuko baita ere adindutako pertsonentzako produktuak ekoiztuko ditugu eta baita ere beste zenbait bezeroei salduko diegu produktu hau, adibidez, zahar etxeei, eskoletako jangelei,...



Produktu hau batez ere oso erabilgarria izan daiteke ostalaritzan, jende asko dagoenean batez ere erabilgarria izan daiteke. Batzuetan zerbitzariak ez dira ailegatzten mahai asko dituztelako zerbitzatu beharra eta ez dute denborarik izaten mahaia garbitzeko hurrengo bezeroak ailegatzten direnerako, eta orduan hau oso erabilgarria izan daiteke beraientzat botoi bakar bat sakatuz mahaia garbitu egiten delako eta baita ere bukaeran mahaia garbitzen egon beharrean sukaldean lagun dezakete ontziak garbitzen eta gordetzen.



Adinduetako pertsonentzat oso erabilgarria izan daiteke, zeren eta produktu honekin egunero egin beharreko etxeko lan bat egitea aurrezten dute eta denbora hori deskantsatzeko edo beste zeregin batzuk egiteko erabili dezakete. Eskoletako jangeletan ere, oso erabilgarria

suerta daiteke produktu hau, eskoletan ikasle aunitz daude eta mahai asko dira garbitzeko eta aunitzetan oso zerbitzari gutxi izaten dira gero mahai guzti horiek garbitzeko eta produktu honen bidez mahaiak garbitzen egon beharrean lurra garbitzeko edo sukaldariei laguntzeko erabili dezakete denbora hori eta gero beste zer egin batzuk baldin badituzte, lana aurrera dezakete beste zeregin horietan.

